

## GIPUZKOAKO MERKATARITZA ENPRESA SARIEN XXIII. EDIZIOA

- *Gipuzkoako Merkataritza Enpresa Sarien ekitaldia azaroaren 27an burutuko da Gipuzkoako Bazkundeko egoitzan, eta Kutxabank eta Euskaltelen babesia izango du.*
- *Aurtengo 10 bitxien kategorian saritutakoak pertsonen eta osasun ekipamenduko sektorekoak izango dira eta merkatariek aukeratuko dituzte bozketa bitartez.*

**Donostia - 2015eko Urriaren 23a** - Sari banaketaren XXIII. edizio honetan, aurreko bitan egin den bezalaxe, Gipuzkoako Bazkondeak Eusko Jaurlaritzako Merkataritza-Bulego Dinamizatzaileekin egin du lan, sariak Gipuzkoa osora gerturatzeko helburuarekin. Sariak esanguratsuagoak eta gertugokoak bihurtuz: **Gipuzkoako sariak.**

Helburu hau argi eta garbi islatzen da "**10 bitxiak**" sarian, eskualde bereko merkatariek direlako Gipuzkoako 10 merkataritza enpresa nabarmenenak aukeratzeko dituztenak, lurraldeko merkataritza bitxien mapa sortuz.

**Pertsonen eta osasun ekipamenduen** sektoreetan oinarrituta egongo diren aurtengo 10 bitxiak aukeratu ahal izateko **urriaren 29 arte** egongo da bozkatzeko aukera. Kategoría hau osatzeko, gipuzkoako merkataritzako aktibitate guztiak hiru talde nagusitan banatu dira: "elikadura" 2013an saritu zen sektorea, "etxerako ekipamendua eta kultura", 2014ean saritu zena, eta "petsonen eta osasun ekipamendua" aurtengo edizioan sarituko dena, horrela orain hiru arte hasi zen zikloa itxiko delarik.

Sarituen izenak Gipuzkoako Merkataritza Enpresa sarién ekitaldian ezagutuko dira. Ekitaldia azaroaren 27an burutuko da Gipuzkoako Bazkundeko egoitzan, eta Kutxabank eta Euskaltelen babesia izango du.

### Gipuzkoako Merkataritza Enpresa

10 bitxiak kategoriaz gain, Gipuzkoako merkataritza enpresa sariak **2015eko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa** kategoriarekin osatzen dira. Sari hau merkataritza sektorean eragin esanguratsua dutenei eta Gipuzkoako gizarteari begira, eredugarria izan diren enpresei zuzenduta dago.

2014ko ekitaldian Ordiziako **Oskarbi Oinetakoak** izan zen sari nagusi hau jaso zuen enpresa. Oskarbi Oinetakoak enpresa gazte eta indartsu bat da, berrikuntza espiritu duena eta 21 urtez oinetakoen sektorean lanean ari dena. Enpresa honek 1994ean hasi zuen bere ibilbidea Ordizian ireki zuen denda batekin, gaur egun 10 dendez osatuta dago eta 26 pertsonak egiten dute lan.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Iruñe Bengoetxea

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)

943 000 310 / 688884347